

GAZTE NAIZ

LOA ETA AMETSA

«Biziera ametsa da»: aspaldidanik esan ohi da hau. Eta, alderantziz gauza bertsua entzun ditek: «ahaztutzeko edan egiten du». Alegia, edanez (edo morfina bidez, edo L. S. D. deritzanaren bidez) beste biziera bat egiten du, egiazkoari alde eginez. Egia zaharrak, antzifatik ezagunak.

Egia ote dira gaur? Loaren eta ametsaren mixterioa hor dugu, tinko, gure aurrean. Geure barruan ere bai. Loa heriotzaren antzekoa da zenbat aldetatik; eta ametsa bigarren bizieraren antzekoa. Nola ez arduratuko gizona, gaur eta betidanik, bi arazo larri horien irudi eta aintzindarizat har ditzakegun fenomenuez?

Psikologian gaur (eta ez Freud'en garaian bakarrik, orain dala mende erdi bat), problema horiek azterkizun nagusi dira; eta oraintxe, 1967-an, psikologiaririk sonatuenak hortaz ari dira, jota-ke, Europa'n eta Ameriketean.

Funtsezko puntu batzuk segurutzat eman omen ditezke. Horietako bat bi lo-mota desberdin daudela. Batari «lo» dei genizake («sommeil» frantsesez), eta besteari «amets» («reve» frantsesez).

Psikologiarik guziek diotenez bi lo-mota hauek sustratetik beretik berezi behar dira. Lerenegoa, loak hartu ondoko bi orduetan gertatu ohi zaigun lehenbizikoa, «lo geldia» deitu dute. Lo-aldi huntan ez dago ametsik, arnasa

polikiago egiten da, baiña besoak eta gainerakoak mogitu egin ditezke.

Bigarren lo-aldian, berriz, psikologiariek «la arin» deitu duten urrengo aldian (gaur miñean barrena gutzaz jabetzen dana), ametsak daude, arnasa eta bihotza arindu egiten dira, baiña gorputz osoa nagitu egiten da guztiz, eta perlesia motu batek jotzen gaitu. Egiazko mundutik ebaikiak gera.

Diotez, bigarren lo-mota hau, amets ez jositako, lozorro «sakona» baiño askoz sakonagoa da. Amets egiten dugunean, beraz, bertago gaude inkontzientetik ametsik egiten ez dugunean baiño.

Are gehiago. Gizonarengan, eta Naturalezan, zaharrena amets egitea da; eta ez itzarrik ede esnai hotzean pentsatzea. Txakurrez, katuek, tximuek, eta txoriek berek amets egiten dute, guk bezelatsu (hau txakurzaleek ba dakite); eta ba dirudi amets egitea izaki guziren arlo normala dala, ia-ia arnasa hartzea bezela edo.

Hu gaur guza ziurra dala dio André Lemaire irakasleak. Amets egitea, beraz, sakonagoa da gizonarengan... ametsik ez egitea baiño. Mitoen beharra sakonagoa da gizonarengan, hitz batez, mitorik gabe eta zientziaren eta egia objektiboen arabera jokatzeko eta bizitzeko baiño. Alde huntatik billatu behar da, nere ustez, XX-garren mendeko «fe-

de» berrien arrakasta ulertzeko. Besterik esaten duena gaurko, eta aspaldidaniko, Psikologiarik aurkikundeen kontra doa arras, eta oker dago, «modan» eta «Kondairaren aldera» (ustez...) joan arren.

Pentsamentua «bigarren mailako eginkizuna» bai ez da gizonarengan, psikologiariek diotenez, amets-egitea askoz beharrezkoagoa gertatuz. Fisher, Dement eta Jouvek' ek frogatu dutenez, amets-egiteko aukera kentzen baldin bazailo gizonari «lo-aldi arina» kenduz, zentzua galdu egiten da. Amets egiten behar hertsia dugu. Bizitzeko pentsatu beharrik ez dagoela, uste dut, gauza ageria da; eta psikologiariek ez dute hortan betarik galdu behar izan...

Huntaz guziaz luzaro mintzatzea egokia izango litzake, eta ondorioak ateratzea ez gutxiago. Gaur oso modan baita «zientzia» izenean sentimendurik bidezkoenei eta joerarik sakonenei «alienazio» deitu eta lasai gelditzea. Baiña hartan baldin badago gaurko Psikologia, zein da «aliena-tua», eta zein «zientziazalea»?

Ethnologia eta Psikologia bide beretik doazelarik, «alienazioak» aipatzen hasi baiño lehenago, XIX-garren mendeko tema eta alienazio zahar eta erdoitu batzuk zokoratzea oso egokia litzake.

LARRESORO

REGIS DEBRAY

Orain dala illabete batzu, Bertrand Russell-ek aukeratu, Gran Bretaña-ko bi soziologo gazte, Robin Blackburn eta Perry Anderson, izanak zirela Bolivian, Regis Debrayri gertatua aztertzeko. Bi bider egin ziren berakin, eta ikasia dute hari gertatu guziaz.

Regis Debray, prantzesa beraz, 26 urteko filosofo eta idazlari ospetsua degu. Joan den epailaren 20-an, bere lanak periodista bezela betetzen ari zela, giltzapetu zuten DIC dalakoaren gizonak, hau da Boliviako politikoa polizak. Eta orain haren bizitza zalantzan dago.

Igazko eguberri aurrean, eskutitz bat artu ondoren, izan zuan asiera gazte honen gertakariak. Eskutitz hau, Fidel Castro-ren ordezkari izandako «Che» Guevara-gandik zatorkion. Honek, 1965-an izkatutu ezkerroztik, zegoen ixiltasunetik ateratzea erabaki zuan, munduari zerbaiz adierazi nahirik. Hortarako, alkarizketa bat izateko periodista bat aukeratu zuan: Regis Debray. Guevararen autatze hori oso zentzuzkoa zan; garai hartan Debray filosofia erakusten ari zan La Habana-ko Unibersitatean, eta Cuba-ko lendarikaren artean begitarte aundia zeukan; eta geiago bi idazlan eta «Matxinada matxinadaren barruan» izeneko liburua argitaratu zituan ezkerroztik. Cubako gora-beheretan bereziki jakintsua dan amerikatar batek dionez, liburu honek besteak ez bezalako teoria berri bat ematen omen du matxinadari buruz, eta espezialki «gudaxka behar du izan lehendabizi, eta partidua ondorean; eta ex beste aldera» esaten duanean.

Zuhurtasun aundiak behar ziran alkarizketa hau egiteko. Hortarako Debrayri agindu zitzaion Parisera joan zedilla, han «La Joie de Lire» deritzan liburuetegian «Che» Guevararen berrien zai egoteko. Otsailaren 15-an izan zituan berriak: Andes mendietan dagon Boliviako hiri nagusia La Paz-eratu joan behar zuan, eta han Andres deitu batekin alkartu; Sucre Palace deritzan ostatuan gizon hori eongo zan bere zai.

Debray-k berekin zeramatzien, François Maspéro edi-

toriaren, eta Mexico-ko «Sucesos» aldizkariako periodista bézela akreditatzen zuten paper ofizialak. Boliviara iritxi bezin azkar, hango Gobernuaren Presidentziako ofizak onartu zitkion ezaugarri hoiak.

Andresekin alkartu zanean, honek Sucre-eratu bialdu zuan. Hemen Laura Martinez «Tanya» izengoitit zuanakin, eta «Che» Guevarari argazki batzu egin behar zitkion Ciro Roberto Bustos margolariakin egon zan. Epailaren 6-an, Camiri hiriratu abiatu ziran, eta handik mendi-basu aldera. Nancahuazu, eta «Coco» ta «Inti» Peredo anaiak orain dela hamarren bat illabete erosi zuten Casa Caramina deitzen zion basetxera iritxi ziran. Toki huntan zeukaten gudaxkariak beren kuartel jenerala eta entrenamentu lekua; eta hemen zan Debray Guevarakin aurkitzekoa, alkarizketak eдукitzea.

Baiñan gauzak uste ez bezela gertatzera zijoazten. Peretroleotako injeniero batek salatu zion Armadari, susmo txarreko joan-etorriak ikusi zituela Nancahuazuko eskualdean. Gudari talde aundi bat bereala bialdu zuten gauzak aztertzeko. Honek, Debray zai zegoen bitartean, piztu zan burruka. Gudaxkariak basetxea utzi ta, baso barrura ospo egin beharrean aurkitu ziran, etsaiak orpoan zituztela. Kon-dizio txar hauetan, azkenean biak alkartu ziran, eta jo-rruailaren 5-erako Debray-k bere lanuri buru eman zion. Peredo anaiak eta «Tanya», handik aste betera Armadako gudariak it zituzten burruka bati eman.

Debray, Bustos eta azkenean alkartu zitzaion fotoegi-ke bat, George Roth izena zuana, abiatu ziran Mnyupampa ulderat. Hemendik Sucre-eratu joateko ziran, polizak geldiarazi zituzten eta komisariarat eraman. Debray etzan larritu, zeren Boliviari ueriodistak sarritan bahitzen zituzten, ordu gutxi barru alkatzeko. Berari ere berdin gertutuko zitzaiolekoan zegoen.

Bitartean, gudaxkariak aldeginako desertore batek, Debray eta Bustos ezagutu zituan eta polizari salatu, gudaxkariaren artean ikusi zituala esanez. Bustos ezagutu zituan eta palizari salatu, gudaxkariaren artean ikusi zituala

esanez. (Salatzalle honen izena, polizak bakarrik daki). Hau jakin bezin azkar, Lagunillas hiriko buruzagieri otegi-ñez, Choretiko Armadaren gudari-txaboletarat eraman zituzten.

Bere ikustera etorri bi soziologo gazteri, Debray-k hala omen zien: «goizeko zortzitan iritxi giñan honerat eta arratsaldeko zortzitan asi ninduten zigortzen». Bustos eta Roth lagunak, tratamendu berdiña izan behar zuten ere. Sanchez komandantea iritxi zanean bakarrik utzi omen zuten zigordia. Sendagilleak, ia korderik gabe aurkitu omen zituan iru gazteak, hauek begiratza ekarri zuten. Gerotzik Debray, eten gabe edukia izan dute galde ta galde, Boliviako polizak, Ameriketako CIA dalakoaren eienteak, USA-ko militarrek eta baita Miami-n dauden kubatarrek ere.

Debray eta bere lagunak giltzapetzeak, eta eman dien tratatu txarreko asarre gorria altxatu dute munduko intelektualeen artean. Debray-ren aita, Pariseko lege-gizonik ospetsuenetakoa da; bere ama berriz, Prantziako Asamblea Nazionaleko diputadua izan da, joandaneko 20 urte hauetan. De Gaulle presidentak, eta Aita Sainduak idtzi zioten Boliviako presidentea dan Barrientos jeneraleri; baita ideologia mota guzietako 71 prantzese intelektualek ere: Sartre, Mauriac, Goddard, Resnais, etab. Gran Bretaña eta Estado Batuetatik: Marcuse, Chomsky, Graham Greene, Bertrand Russell, beste askoren artean.

Debray, Bustos eta Roth ziur daude jende hauen asarreatatik izango ez balitz, irilkia «garbituak» egongo litzake.

Berak sortu zituala gudaxkak arpegira bota ziotenean, hala erantzun omen zuan Debray-k: «Nola pentsa ditek, gizon hoiak gudaxketan egongo zela» 26 urteko prantzese bat deitzeko beharrean ikongo zitala?»

Egun hauetan auzia asi da. Gero ikusiko zein ulerako dan garaille: indarra hala justizia.

ARZABAL